

2010EKO URRIAREN 22AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bia.

HILABETEA: Urria.

URTEA: Bi mila eta hamar.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko hamarrak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Jon Kortaberria Lasa

Begoña Lasa Royuela

Julio Herreros Serna

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2010eko irailaren 27ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- OBRAK ESLEITZEA. Lorategi kalea berritzeko eta egokitzeko (zoladura berria) obrak exekutatzeko behin-behineko esleipena.

Ezagutzera eman da, 2010eko urriaren 4an, Kontratazio-Mahaiak egindako proposamena:

“AURREKARIAK

I.- Gobernu Batzordeak 2010eko irailaren 27ko datarekin egindako ohiko bileran, erabaki zuen Lorategi kalea berritzeko eta egokitzeko obrak lizitzeko proiektua eta baldintza plegua onartzea, kontratazioa publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez, lizitazioa prezioa: 169.626,86 €, BEZrik gabe eta adjudikazio irizpidea, prezio baxuena.

Lizitazioan parte hartzeko ondorengo hiru enpresa hauei gonbidatu zaie: Construcciones Oriako, Construcciones Iturrioz eta Urbycolan.

Bakoitzak eskainitako prezioa ondorengoa da:

ENPRESAK	LIZITAZIO PREZIOA
CONSTRUCCIONES ORIAKO	168.955,61
CONSTRUCCIONES ITURRIOZ	167.225,20
CONSTRUCCIONES URBYCOLAN	166.227,70

Horren ondorioz, Kontratazio-mahiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

Lehenik. Aipatutako obrak behin-behinik **URBYCOLAN, S.L.**ri esleitzea, **166.227,70 €tan, BEZ kanpo**. Egikaritze epea, zortzi astekoa da.

Bigarren. Adjudikaziodunak **8.311,39 €ko behin betiko fidantza** eta gizarte segurantzan eta zerga betebeharretan eguneratuta egotearen agiriak aurkezten dituztenean, behin betiko esleipena egingo da. Horretarako eta kontratua sinatzeko Alkateari baimena ematen zaio. Behin betiko fidantza, behin-behineko esleipena jakinarazten den hurrengo egunetik kontatzen hasita eta hamabost eguneko epean aurkeztuko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, proposamena aho batez onartu da.

4.- IGARTZA MULTZO MONUMENTALEKO KUDEAKETA ETA USTIAKETA KONTRATATZEA. Baldintza plegua onartzea eta deialdi publikoa egitea.

Gai hau mahai-gainena utzi da, Igartzako batzordeak proposamenik egin ez duelako.

5.- ZERBITZUAK KONTRATATZEA. Beasaingo udaleko zergak ikuskatzeko zerbitzua eta laguntza emateko lankidetzaren kontratazioa:

a.- Aurkeztutako errekurtsua ebaztea.

b.- Baldintza plegu berria onartzea eta deialdi publikoa egitea.

Ezagutzera eman da, gaur bertan Kontratazio-Mahaiak egindako proposamena:

“GAIA: Beasaingo Udalaren zergak ikuskatzeko zerbitzua eta laguntza emateko lankidetzaren kontratazioa.

I.- 2010eko ekainaren 28an Gobernu Batzordeak erabaki zuen deialdi publikoa egitea, Beasaingo Udalaren zergak ikuskatzeko zerbitzua eta laguntza emateko lankidetzaren kontratazioa esleitzeko, horretarako baldintza plegua onartuz.

II.- Deialdia 2010eko uztailaren 2ko GAOean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko epean, SERVICIOS DE COLABORACIÓN INTEGRAL, S.L.ek baldintza pleguaren aurka errekurtsua aurkeztu zuen, adieraziz 18b) klausula zuzenbidearen aurkakoa dela arrazoi hauengatik:

- Kanporatzaile eta diskriminazio larria sortzen duten eragina du.
- Eskatzen den baldintzarekin ez da justifikatzen ezagutza, baizik eta enpresek lortutako kontratuak.

- Konpetentzia mugatzen du eta hori interes publikoaren eta konkurrentzia printzipioaren aurka doa.
- Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen Legearen 67. artikulua aurka, nahiz 2004/18/CE Direktibaren aurka doa, zeren eta hauek ez dute adierazten zenbait ziurtagiri aurkeztu behar diren.
- Onargarri ezina da, tokiarekin zer ikusia duten baldintzak eskatzea.
- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa kreditatzeko nahikoa da, 18g) artikuluan eskatzen den klasifikazioa aurkeztea.

Horrek guztiagatik eskatzen du ondorengo baldintza bertan behera uztea: azken hiru ekitaldietan zerga-ikuskapen zerbitzua Gipuzkoako Lurralde Historikoko hiru herrietan gutxienez eman izana.

III.- 2010eko irailaren 13ko datarekin, Idazkariak ondorengo ebazpena eman zuen:

“Azken hiru ekitaldietan zerga-ikuskapen zerbitzua Gipuzkoako Lurralde Historikoko hiru herrietan gutxienez eman izana eskatzeak lizitaziora aurkeztu diren enpresak eskarmentua dutela esan nahi du. Estatukoarekiko ezberdinak diren Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko zerga-arauak ezagutu beharrak justifikatzen du baldintza hori eskatzeak.

Esperientzia, kaudimen irizpide bezala aintzakotzat hartu daiteke, baina ez Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen Legearen 134,1 artikuluan prozedua esleitzeko aurreikusitako irizpide objektibo bezala (Kontratuziorako Aholkularitza Batzordearen txostenak eta Jurisprudentzia, [22/94](#), [28/1995 \[JUR 1995, 7\]](#), [53/97 \[JUR 1998, 218795\]](#), [13/98](#), [44/98 \[JUR 1998, 218794\]](#), [27/98](#), [33/99](#), [36/01 \[JUR 2002, 286671\]](#) y [37/01 \[JUR 2002, 286667\]](#)). Horrela jaso da, hain zuen ere, baldintza pleguan. Esperientzia ez da kapritxo moduan eskatu, baizik eta kontratuaren helburuarekin bat dator.

Konkurrentzia ez da mugatzen, baldintzak lurraldeko izaerarekin ez duelako. Lizitaziora aurkeztuko diren enpresei ez zaie eskatzen egoitza soziala, sukurtsala edota bulegoa halako herrian edo eremu geografikoan izatea, tokiko enpresen kontratazioa errazteko helburuarekin. Horrek bai berdintasun eta lizitatzailleek ez diskriminatzeako printzipioak hautsiko lituzkeela eta inolaz ere ezingo luke izan sektore publikoarekin kontratatzeako gaitasuna eta ezta ere balorazio irizpidea.

Kontratazio Administratiborako Aholku Batzordearen arabera (uztailaren 22ko 48/1996 txostena [\[JUR 1996, 3\]](#) klasifikazioa eskatzen denean kontratazio organoak ezin duena da, kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoak justifikatzeko, lizitatzailleei eskatu beste dokumentu batzuk aurkezteko. Hain zuzen ere klasifikazioak justifikazio horiek ordezkatzeko dituelako. Beraz alegazio aurkeztu duenak honetan bai duela arrazoa. Baina, esperientzi hori eskatzeak, autonomia erkidegoko zerga-arauaren ezagutza duela suposatzen du eta hori prozedura murriztuarekin lortu daiteke. Parte hartu izateko irizpide objektiboak erabili daitezke eta eskatu daiteke enpresak esperientzia edo espezializazioa izatea, izan ere prozedura horren helburua enpresen parte hartzea murriztea da, zenbakia mugatuz. Logikoa da murrizketa hori enpresen esperientzia edo espezializazio irizpideekin egin daitekeela.”

IV.- Aldi beran ezagutzera eman da, abuztuaren 5eko 34/2010 Legeak (2010eko abuztuaren 9ko EAO), hain zuen ere, pasa den irailaren 9an indarrean sartu denak, Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen urriaren 30eko 30/2007 Legea aldatu duela eta horren ondorioz, aldaketa horietara baldintza plegua egokitu egin behar dela.

V.- Zerga-ikuskapen gaian estatuko eta foru-arauen artean dauden diferentziak aztertu ondoren, Kontuhartzaileak egindako txostenaren arabera, zerbitzua kontratatzeako, prozedura murriztua erabiltzea proposatzen da, kaudimen ekonomikoa, teknikoa eta finantziarioa honela kreditatuz:

1. Kontratastaren klasifikazioarekin (beharrezkoa da kalkulatzeko delako kontratuaren aurrekontua 120.000 €koa baino handiagoa delako).
2. Toki zerga ikuskapen zerbitzua emana izatea edo ematen aritzea, gutxienez Gipuzkoako Lurraldeko hiru udalerrietan azken hiru urteotan, Lurralde honetako arautegia aplikatuz.

Arrazoa da gai honek ez duela eskatzen bakarrik arautegiaren ezagutza baizik eta gutxienerako eskarmentua edukitzea ere beharrezkoa dela.

Beraz, Kontratazio-mahaiak Gobernu Batzorde, kontratazio organoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Alegazioa partzialki onartzea eta horren ondorioz deialdia ezeztatzea beste berri bat eginez prozedura murriztua erabiliz. Baldintza pleguak abuztuaren 5eko 34/2010 Legeak aurreikusitako aldaketak jasotzeaz gain, kaudimen ekonomikoa, teknikoa eta finantziaroa kreditatzeko aipatutako bi baldintza horiek ere jaso egin beharko ditu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, proposamena aho batez onartu da.

6.- ESKAERA ETA GALDERAK.

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera hamarrak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.